



ENERGIA, BIZITZAREN MOTORRA II

LEGAZPIKO EA 2030 ESKOLA UDAL FOROA

2024/05/14

Egun on: Beste behin ere, ikasturte honetan Eskolako Agenda 2030aren bidez landutakoa eta egingo duguna azaltzeko bildu gara hemen.

Izenburuan ikusiko zenuten bezala, iaz hasitako *Energia bizitzaren motorra* lelopean 2. urtea izan da hau, eta Garapen Jasangarrirako 7. Helburuaren inguruan aritu gara lanean: **Energia eskuragarria, fidagarria jasangarria eta modernoa bermatzea denontzat.**

Ohikoa den bezala ere, Domingo Agirre, Haztegi ea Olazabal ikastetxeek hartu dugu parte.

Esan bezala, joan zen ikasturtean Energia gaiaren inguruan lanketa hasi genuen diagnostiko bat burutuz, proposamenak eginez eta konpromisoak hartuz, eta aurtengo lana gai horren inguruan esku hartze plana antolatzea izan da.

Esku hartzea energiaren inguruan antolatzea zaila izan da guretzat, hau da, gai hau ardatz hartuta, herrian zerbait hobetzeko, zer egin dezakegu?. Ba pentsatu genuen jendea gai honen inguruan eta modu erakargarrian, sentsibilizatzeko eta informatzeko, *Energia festa* antolatzea ondo egongo litzatekeela.

Eta zergatik?, ba herritarrek sentsibilizazioa eta informazioa eskatu zutelako nagusiki *Argitzen Urola Garaia*tik egindako inkesta batetan.

Energia gaia oso zabala denez, 3 lerrotan zentratzea erabaki genuen: Herrian oinez ibiltzearen garrantzia ezagutaraztea; energia berriztagarrien inguruan hitz egitea; eta komunitate energetikoen inguruan aritzea, hain zuzen ere.

Lehen Hezkuntzako 5. mailakoak, bereziki iaz hartutako konpromiso batean oinarritu gara oinez ibiltzearen garrantziari eusteko: "lekuetara joateko garraio publiko gehiago erabiliko genuela, eta batez ere oinez eta bizikletaz ibiliko ginela" esan baikenuen. Horrela, oinezko mugikortasuna sustatzeko, *metrominuto* tresnaren bidez etxetik eskolara oinez joatearen garrantzia herritarrei azaldu nahi diegu.

Helburu desberdinak betetzen ditu oinez herritik mugitzeak: autoek sortzen duten kutsadura murriztu egiten da, ez da CO₂ eta okerragoak diren beste gas batzuen igorpenik sortzen. Bestalde oinez goazenean kirola egiten dugu, eta lagunekin elkarrekin joateko aukera ere daukagu, eta bereziki aurtengo gaiari lotuta, energia gastua murriztu egiten da, erregai fosilik ez dugu erabiltzen oinez joateko eta umore txarrak eta auto ilarak ekiditen dira gainera.

Metrominutoa egiteko, Legazpiko mapa baten gainean herriko puntu esanguratsuenak zehaztu ditugu, eta euren arteko distantzia eta denbora zein den adierazi dugu bertan. Horretarako, kolore desberdineko marra zuzenak erabili ditugu, kolore bakoitzak iraupen zehatz bat izanik.

Energia festa egunean esku-orriak banatuko ditugu herritarrentzat eta egindako posterrak erakutsiko ditugu. Gure mezuak jendea konbentzitzeko izango dira: herriko hainbat lekuetara oinez joatea, kotxez ibiltzea baino hobea dela adierazteko. Mezuak hauek dira:

- Oinez ibiltzeak onura hirukoitza suposatuko dizu: osasuntsuago egongo zara, dirua aurreztuko duzu eta gutxiago kutsatuko duzu gainera.
- Estresa eta umore txarra ekiditeko, oinez joan eskolara eta lanera!
- Kotxea gutxiago erabiliz, istripuak saihestuko dituzu.



ENERGIA, BIZITZAREN MOTORRA II

ESKOLAKO AGENDA 2030
UROLA GARAIA

ESKOLAKO
AGENDA
2030

Galemys

DBH (2-3-4ko ikasleok) iaz hartutako beste konpromiso bati heldu diogu: “eguzki panelak jartzeko garaian informatuta egongo ginela eta etxeokak energia aurreztera bideratutako neurriak hartzera bultzatuko genituela”. Beraz, energia berriztagarriak eta komunitate energetikoak gaiak landu ditugu eta hauen inguruan informazioa zabalduko dugu.

Gainera, UGGASAK antolatuta, eta Foru Aldundiko Garapen Jasangarriaren laguntzaz eta Urola Garaiko Lanbide Eskolak (UGLE) aurkeztuta, hitzaldiak izan genituen ikastetxeetan. Energia orokorrean eta bereziki energia fotovoltaikoaren inguruko informazio eman ziguten, eta plaka fotovoltaiko bat eta aire sorgailu baten maketa txiki bat eraman zituzten, energia mota bat beste energia mota batean eraldatzen dela konturatu gintzen.

Plaka fotovoltaikoak Urola Garaia osatzen duten lau herrietako zein udal eraikinetan dauden erakutsi ziguten ere. Aurkezpenean, Legazpikoak jarri ditugu soilik: Udaletxekoa, Brinkolako Eskolakoa, Bikuña polikiroldegikoa eta Domingo Agirre eta Haztegi ikastetxeetakoak.

Esan ziguten ere Legazpin 102,6 kW sortzen direla urtean eta 42mW/h sortzeko ahalmena dutela, hau da, 14 etxebizitzek kontsumitzen duten adina energia. Horrez gain 17 tona CO₂ isurtzea ekiditen da plaka hauei esker.

Orduan, *Energia festarako* gure helburua izango da jendea energia berriztagarriak erabiltzera bultzatzea eta komunitate energetikoak zer diren modu sinplean azaltzea. Aurreko gaiarekin esan duten bezala, guk ere muralak eta informazio orriak egingo ditugu herritarrek sentsibilizatzeko helburuarekin .

Energia festa egunean postu pare bat izango ditugu aipatutako guzti hau erakusteko eta gaurtik aurrera antolatuko gara falta zaiguna osatzen joateko. Gonbidatuta zaudete **ekainak 7** ostirala *Energia Festara!*. Goizeko 9:30tatik 12:30ak arte han izango gara.

Eskerrik asko zuen arretagatik, Domingo Agirre eskola, Haztegi ikastola eta Olazabal institutuaren partetik.